

Ingurumenari eta prebentzioari lotutako jarduerak ere -haietako batzuek gainditu egiten dute arauek nahitaez bete behar dela ezartzen dutena- sartu dira 2013-2017ko Plan Estrategikoan.

# Jasangarritasunerako bidean aurrera eginez

## ZARATA-MAPA

Zarata-mapak egiteko legezko obligaziorik ez duen arren, Bilboko Portuko Agintaritzak eguneratu egin du bere Zarata Mapa, gaur egungo egoeraren berri izateko, garapen garrantzitsua egin baitu bere instalazioetan. Lortutako informazioa eskura jarri die portuaren inguruko udalei eta Bizkaiko Foru Aldundiari.

## LURRETIK ITSASORAKO ISURKETAK

Ekitaldian zehar, hondakin-urak jasotzeko sistema berrirako aukerak aztertu dira, eta aukeratutako alternatibaren aurreproiektua egin da, irizpide teknikoak eta ekonomikoak kontuan hartuz. Alternatiba hori berritzailea da portu-arloan; teknologia-maila handia du, eta oso eraginkorra da. Oso proiektu handia denez, fase batean baino gehiagotan egingo da, hurrengo urteetan.

## AIREAREN KALITATEA

Portuko Agintaritzak airearen kalitatearen parametroak kontrolatzeko puntuen sarearekin jarraitzen du, bai eta Eusko Jaurlaritzaren sarearen bidez lortutakoekin ere. Halaber, informazioaren tratamendua hobetzeko ahalegina egin du, eta “Bilboko Portuko airearen kalitatearen modelizazio- eta iragarpen-proiektu bati” ekin dio.

## DRAGATZE-MATERIALA

2013aren bukaeran, AZTI FUNDAZIOAri esleitu zaizkio Bilboko Portuaren mantentze-lanetarako dragatzeen aholkularitza, karakterizazioa eta jarraipena egiteko lanak, bermatzeko indarrean dagoen araudiaren arabera egiten direla eta ingurumena zorrotz errespetatzen dutela.

## INGURUMEN-JARDUNBIDE EGOKIEI BURUZKO HITZARMENA

Portuko Agintaritzak ingurumen-jardunbideak hobetzeko sustapen-politikari eutsi dio, eta, hala, terminalekin dituen hitzarmenak berritu edo hitzarmen berriak sinatu ditu. Alde horretatik, ingurumen-jardunbideek eragiten dieten terminaletan Portuko instalazioetan ontziratu gabeko produktu solidoak manipulatzeko eta biltegiratzeko jardunbide egokien gidaliburua ezartzen hasi da.

## JASANGARRITASUN TXOSTENA

Bilboko Portuko Agintaritzaren Jasangarritasun Txostenak GRI gidaliburuaren (3.1 bertsioa) araberako “A sailkapeneko” baldintzak betetzen ditu.



Las actuaciones relativas a medioambiente y prevención, algunas de las cuales superan la normativa de obligado cumplimiento, también se han enmarcado en el Plan Estratégico 2013-2017.

# Avanzando en la sostenibilidad

### MAPA DE RUIDO

Aun sin tener la obligación legal de elaborar mapas de ruido, la Autoridad Portuaria de Bilbao ha actualizado su "Mapa de Ruido", a fin de conocer la situación actual, dado el importante desarrollo llevado a cabo en sus instalaciones. La información obtenida ha sido puesta a disposición de los Ayuntamientos del entorno portuario y de la Diputación Foral de Bizkaia.

### VERTIDO TIERRA-MAR

Durante el ejercicio se ha procedido al estudio de las alternativas propuestas al nuevo sistema de recogida de aguas residuales y al desarrollo del anteproyecto de la alternativa elegida en base a criterios técnicos y económicos. Esta alternativa es novedosa en el ámbito portuario, con un gran componente tecnológico y altamente eficaz. Dada su envergadura, se realizará en varias fases a lo largo de los próximos años.

### CALIDAD DEL AIRE

La Autoridad Portuaria continúa con su red de puntos de control de parámetros de calidad del aire, además de los obtenidos de la red Gobierno Vasco. Asimismo, ha realizado un esfuerzo de mejora en el tratamiento de la información y ha iniciado un proyecto de "modelización y predicción de la calidad del aire en el Puerto de Bilbao".

### MATERIAL DE DRAGADO

A finales de 2013, se ha adjudicado a AZTI-FUNDAZIOA el asesoramiento, caracterización y seguimiento de los dragados de mantenimiento del Puerto de Bilbao, a fin de garantizar que éstos se realizan de acuerdo a la normativa vigente y son escrupulosamente respetuosos con el medio ambiente.

### CONVENIO DE BUENAS PRÁCTICAS AMBIENTALES

La Autoridad Portuaria mantiene la política de promoción de mejora de las prácticas medioambientales, mediante la renovación o firma de nuevos convenios con las terminales. En este sentido, se ha comenzado a implementar la "Guía de buenas prácticas en la manipulación y almacenamiento de graneles sólidos en instalaciones portuarias" en aquellas terminales afectadas.

### MEMORIA DE SOSTENIBILIDAD

La Memoria de sostenibilidad de la Autoridad Portuaria de Bilbao cumple los requisitos de "Clasificación A" según la guía GRI versión 3.1.